



txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

3

Boga-boga marinela!

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

HIRUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA “BOGA-BOGA MARINELA!”

Sekuentzia tematikoa: Itsasoa eta euskaldunak

Euskaldunak eta balea:

- Euskal balea.
- Bale ehiza.
- Balearen etekina.
- Ternuara balearen bila.

Euskaldunak ontzigintzan.

Errenazimentua. Nabigatzaileak

Piratak

Arrantza gaur egun.

Itsaso eta erreketako animaliak.

Itsasoa fantasia-iturri.

Gabonak.

Proiektua: Itsaso eta erreketako animalien bilduma.

Irteerak: Aquarium-era.

Herriko arrandegi batera.

Hondartza edo erreka batera

Ipuinak:

- **KARRAMARRO UHARTEA: BALEAREN KANTUA.**

Irusoin, ETB, Tarttalo.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Joko kooperatiboak: Hareazko poltsatxoak (laguntza eman eta hartzekoa) Manta magikoa (konfiantzazkoa)
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	Bale ehizaren ondorioak. Arrantza gaur egun.

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Ipuina: <i>Irati Pirata</i> . J. K. Igerabide Olerkiak: J. Ormazabal, A. Lertxundi, J. M. Irigoien Igarkizunak: X. Etxaniz, J. Ormazabal Bertsoak: M. Mendizabal Balearen bertsoak (euskalkia). Orbegozo
Ingurumena	Euskal balearen ezaugarriak. Bale ehiza. Untzigintza. Euskal nabigatzaile handiak: Elkanok, Urdaneta. Euskal piratak. Olentzero.
Musika eta gorputz motrizitatea	Euskaraz bizi, jolaserako abestia: “Gaztelugatxe”. Oskorri. “Balearen bertsoak”. B. Lertxundi. “Piratarena”. J. Ripiau. Tradiziozko abestia: Boga-boga mariñela. Olentzero. Intxaur saltsa.
Arte Plastikoak	Elias Salaberria, “Elkanoren lehorratzea”

TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 3. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	63	
1		Azalari behatzea	3	63	
2		Komikia	4-5	64-65	
5		<i>Gaztelugatxe</i>	5	65	
9		Gurasoei eskutitza	7	67	
9		Carta a los padres	7	67	
10		Igarkizunak	7	67	Irakurgaiak, 32
12		Abestiaren letra	8	68	
12		<i>Itsas urdinean</i>	8	68	
13		Nota grabeak eta nota agudoak	8	68	Musika. Lan-koadernoa, 16
15		Perkusio-jolasa: <i>Xalom jabali</i>	8	68	Musika. Lan-koadernoa, 18
16		<i>Farfaileen fereka</i>	8	68	Musika. Lan-koadernoa, 19
17		<i>Itsasoan urdin</i>	8	68	Musika. Lan-koadernoa, 20
18		<i>Negua</i>	8	68	Musika. Lan-koadernoa, 21

19		<i>Nondik, nondik?</i>	8	68	Musika. Lan-koadernoa, 21
20		Donostiako Aquarium	9	69	
20		Biarritzeko itsas museoa	9	69	
20		Monterrey Bay aquarium	9	69	
25		<i>Bertso berriak Orioko baleari jamiak</i>	11	71	Irakurgaiak, 34-35
26		Orioko parodiaren gidoia	11	71	
30		<i>Boga, boga, marinela</i>	13	73	
32		Ontzigintza	14	74	Material osagarria
34		Nabigatzaile handiak	16-17	76-77	
35		Andres Urdaneta 1	16	76	Lan-koadernoa, 26
35		Andres Urdaneta 2	16	76	Lan-koadernoa, 26
36		<i>Boga, boga</i>	17	77	
39		Artelana: <i>Elkanoren itzulera</i>	18	78	
41		Balearen arrantza + Elkanoren bira	18	78	
43		J. S. Elkano 1	19	79	Lan-koadernoa, 27
43		J. S. Elkano 2	19	79	Lan-koadernoa, 27
43		J. S. Elkano 3	19	79	Lan-koadernoa, 27
48		<i>Piraten kopia</i>	21	81	

51		Anton Garai	21	81	Lan-koadernoa, 29
51		Anton Garai	21	81	Lan-koadernoa, 29
51		Anton Garai	21	81	Lan-koadernoa, 29
59		Let's find the treasure	24	84	
60		Hauk bai piratak, hauk!	25	85	
69		Itsasoa fantasia-iturri	28-29	88-89	
70		Entzunaldia: <i>Akuarium</i>	29	89	
71		Bizar Zuri	30	90	
71		<i>Bizar Zuri</i>	30	90	
73		Olentz-ero	31	91	
73		<i>Olentz-ero</i>	31	91	

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Ohi bezala, liburuaren azalari behatzea eta horri buruzko elkarrizketa bultzatuko ditugu, aurreikuspen-estrategiak landu eta hurrak motibatzeke asmoz. Gogoratu Tough-en hizkuntza-funtzio batzuk martxan jar ditzakezuela, egoera eta erantzunen arabera.

- *Zer ikusten dugu?*
- *Zer jartzen du?*
- *Azala ikusiz, zer-nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?*
- *Atsegin al duzue gaia? Zergatik?*
- ...

2. Komikia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Irakurketari ekin aurretik. hurrak girotu egingo ditugu hizkuntza-funtzio batzuk martxan jarritz:

- *Hasteko, izenburuari erreparatuko diogu: Zer adierazi nahi izango du?*
- *Gogoratzen al duzue nola bukatu zen aurreko komikia?*
- *Zer gertatuko dela uste duzue orain?*
- ...

Hurrei, banaka, komikia irakurtzeko tartetxo bat eman. Ziurrenik ezagutzen ez duten hitzen bat azalduko da (istriborrera, adibidez). Guztion artean argitu esanahia. Ondoren, komikiaren haria erabiliz, ekintzak iragartzen, proiektatzen eta imajinatzen saiatuko gara:

- *Aitonak zer sentituko du bidaiara egitean? Eta Maddalenek eta Ferminen aitona eurekin joatean?*
- *Zuek zer sentituko zenukete zuen aitona zuekin bidaiatzera joango balitz?*
- *Bidaian, gure pertsonaiak norekin ibiltzea gustatuko litzazueke?*
- *Arriskuren bat izango ote dute bidaiara zehar? Zer? Zergatik?*
- *Eta nola gaindituko dute?*

Elkarrizketatxoa bukatu ondoren, taldeko irakurketa egin dezakegu. Hasteko, paperen banaketa egingo dugu, zein ikaslek irakurriko duen pertsonaia bakoitzari dagokion testua denon artean adostuta. Komenigarria litzateke ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko diotela komiki-hizkuntzaren baliabideei, ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain, doinuaren garrantzia azpimarratuz.

3. Gure aitona-amonen istorioak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Maddalenen aitona bere garaiko istorio interesgarria kontatu die hurrei. Gure ikasleak animatu behar ditugu, euren aitona-amonekin hitz egin dezaten. Agian, haiek istorio interesgarriren bat izango dute. Horrela bada, haur bakoitzak bere aitona edo amonari entzundakoa gelan konta dezake.

4. Aitona-amonen erretratuak

Lan egiteko era: Bakarka

Aurreko unitatean, deskribapena eta erretratua landu genituen. Bide hari jarraituz, oraingoan, gure aitona-amonen erretratua egin dezakegu. Horretarako, lehen unitatean erabili genituen argazkiak har ditzakegu eta fotokopiatu (bestela, etxetik ekarritakoak fotokopiatu) eta arkatzez erretratua egiten saia daitezela. Ondoren, margoak hartu eta marrazkia osa dezakete.

5. Abestia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: CDa

Oskorriren “Gaztelugatxe” abestia jarriko dugu. Ondoren, abestiaren letrari erreparatu ote dioten galdetuko diegu, istoriotxoaz jabetu diren, alegia. Musikaz gozatzeaz gain, abestien letra entzun eta ulertzea bultzatuko ditugu. Bigarren aldiz entzun aurretik, letran arreta jartzeko eskatuko diegu. Elkarrizketa txiki bat izan dezakegu abestiaren letrari buruzkoa eta, era berean, hizkuntza-funtzioren bat bultzatu:

- *Inork ulertu al du entzundakoa, osorik ez bada, zatiren bat?*

- *Zer da kanta honetan kontatzen dena?*

- *Zein dela uste duzue kanta honen mezua?*

- ...

Idazketa-kodea finkatzeko asmoz, ikasleei lagungarria gerta dakieke, tarteka, abestiren bat edo abesti baten zatitxo bat folio batean kopiatzea (ortografia eta zehaztasuna lantzeko) eta orria ilustratuz, gaia adierazten duen irudia egitea.

6. Bertsoa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: 3. lan koadernoan, 24. or.

Mikel Mendizabalen euskaldunak eta itsasoari buruzko bertsoari dagozkion oinak jartzen hasi orduko, zakuan agertzen diren hitzak irakurri eta horien esanahia argitzen saiatuko gara. Horrekin batera, oin bakoitzaren errimari erreparatu eta sailkapen bat egin dezakegu, bertsoan erabil ditzakegunak zein izango diren aurreikusiz.

Ondoren, ikasle bakoitzak bere lan-koadernoan ariketa burutuko du.

Gero, talde handian, esanahia eta metrika kontuan izanik eta oin bakoitzaren kokapena eztabaidatuz, bertsoa modu zuzenean osatuko dugu eta, amaitzeko, abestu egingo dugu.

Bertsoa buruz ikasten ere saiatuko gara.

7. Zer jakin nahi duzu?

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.

Komikiak, abestiak eta bertsoak eman dizkigute, dagoeneko, landuko dugun gaiaren inguruan hainbat pista; beraz, taldeko elkarrizketa bultzatuko dugu eta gaiaren inguruan dakiten guztiaz mintzatuko gara, hau da, aurre-ezagutzak ahoz adieraziko ditugu. Ondoren, haurrek gai honi buruz jakin nahi dutena arbelean idatziko dugu eta ikasleen eta irakaslearen interesen arabera, ikasnorabidea adostuko dugu.

8. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Talde handian testua irakurri eta argazkiari behatu ondoren, itsasoan eta erreketan bizi diren animalien bildumatxoa egitea proposatuko diegu ikasleei.

9. Txoko zuria hornitzen

Lan egiteko era: Talde handian

Txoko zurian jar dezakegunari buruz hitz egingo dugu orain. Ikasleek etxetik ekar dezaketena idatziko dute orri batean. Gurasoei, berriz, honen antzeko eskutitza bidal diezaiekegu:

Guraso agurgarriak:

Erdi Aroko garai ilunak atzean utzirik, gure lagunak aro berri batean murgilduko dira. Zientzia eta aurkikuntza handien garaian! Berriro ere bidaia egin dute gu hemen utzita, eta ezetz asmatu nor eraman duten eurekin oraingo honetan? Bada, galdetu zuen seme-alabei! Ondo asko dakite eta!

Oraingo honetan, itsasoa eta euskaldunak izango ditugu ikasbide. Guk dakigun guztia irakatsi eta erakutsiko diegu, baina zuen seme-alabak ez dira horrekin konformatzen, gehiago jakin nahi dute; horregatik, berriro ere zuen laguntza eskatzera gatoz.

“Boga-boga marinela” da jakinmin hori asetzen lagunduko digun unitatea. Bertan, hainbat gai jorratuko ditugu: balearen arrantza, nabigatzaile handiak, piratak eta kortsarioak, arrantza gaur egun, itsaso eta erreketako animaliak eta baita itsasoarekin zerikusia duen mundu magikoa ere; ipuinak eta kondairak, alegia.

Hartara, badakizue, gai honi buruz daukazuen guztiari izena jarri eta bidal ezazue zuen seme-alabekin, denok eskertuko baitugu.

Bueno, denok zerbait gehiago ikasiko dugulakoan, agur esan beharko. Zoriontsu bizi eta laster arte!

Pox eta Urdintxo

Hola, familia:

La oscura época de la Edad Media ya nos queda lejos, pues nuestros amigos se han vuelto a marchar de viaje a una época llena de grandes descubrimientos.

¡Ah! ¿A que no sabéis a quién se han llevado esta vez? ¿No?. Pues preguntádselo a vuestros hij@s!

Nosotros nos hemos quedado aquí y ellos se han ido a conocer de cerca el tema del mar y los euskaldunes, ¡vaya suerte!

¡Qué le vamos a hacer! Al grano: “Boga-boga marinela” será la unidad que nos adentrará en la caza de la ballena, los grandes navegantes y sus descubrimientos, los piratas y corsarios, y en un mundo de fantasía que podremos encontrar en el fondo del mar. Nosotros trataremos de contarles y enseñarles todo lo que sabemos, pero necesitaremos vuestra ayuda, pues vuestros hij@s no se conforman con cualquier cosa y ¡siempre quieren saber mas! Así que ya sabéis, poned nombre a todo aquello que guarde relación con el tema y, si es posible, que lo traigan a la ikastola.

Bueno, con la esperanza de que todos aprendamos un poquito mas, nos despedimos. ¡Sed felices y hasta pronto!

Pox y Urdintxo

Txoko zurirako etxetik ekarritako material guztia talde handian aurkeztuko dugu, ikasleek gaia lantzeko orduan dagoenaren erreferentzia izan dezaten.

10. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 32. or.

Xabier Etxaniz eta Joxean Ormazabalen hiru igarkizun hauek itsasoari, errekarari eta arrainari buruzkoak dira.

Ikasleei, bakarka, irakurtzeko eta erantzuna asmatzeko esango diegu. Ondoren, taldean irakurriko ditugu eta erantzun posibleak eztabaidatuko.

11. Buztinezko itsasoa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Buztinezko xafla batean egiturak landuz, itsasoa adierazi eta beste xafla batean eginiko arrain baten, itsasizar baten... (edo batzuen) irudia moztu eta horren gainean ipini, eta behe-erliebe bat egin. Arrainaren azala, ezkatat ere adierazi eta, ahal bada, “engobe”ak (buztina eta beste mineral batzuk urarekin nahasita lortzen den ore) erabili margotzeko labean sartu aurretik. Ezin bada, egingako lana erabat lehortzen utzi eta tenperak erabili.

Sare puskak baditugu, kortxoak edo sokatxoak (itsasoan erabiltzen direnak, korapilatuta etab.) apaintzeko erabil ditzakegu.

Buztinez egin beharrean, paper-pastaz ere egin daiteke, oinarriztat “okume” xafla bat erabilia. Paper-pasta komuneko paperari kola nahasiz egin dezakezue, instante batean.

12. Musika ikasten ari gara

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. or./CDa/CD-ROMa

Imanol Urbietaren abesti honek gaian kokatzen lagunduko digu.

Musikako lan-koadernoko proposamenak

13. Nota grabeak eta nota agudoak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 16. or., 3.1. fitxa/CDa, jarduerak

Bi nota hartu ditugu erreferentzia bezala. Pianoz jotako bi nota horietako bat grabea da eta bestea agudoagoa. Bi noten arteko bitartea argi samar uzteko asmoz, tarte zortziduna duten bi nota aukeratu ditugu.

Gelan, CDa oraingoz ahaztu, eta irakasleak gidatutako ariketa gehiago egitea proposatzen dugu. Edozein musika-tresna erabil daiteke (pianoa, txirula, xilofonoa, gitarra...). Aurrera egin eta ikasleek ariketaren funtsa ulertu duten neurrian, bi noten arteko distantzia murrizten joango gara. Eskema bakoitza nahi beste alditan errepikatuko dugu, ikasle guztiek ariketa lasai eta txukun egin dezaten.

Ariketa hori egiterakoan, memoria pixka bat ere eduki beharra dago, idazketara pasa aurretik, lau notaz osatutako sekuentziak entzun behar baitira.

14. Fa, nota “barregarria”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 17. or., 3.2. fitxa

Beste nota bat etorri da gurera. Fa da bere izena. Horrek umore ona ekarri du pentagramara eta denek ongi-etorria eman diote. Mi atezaina eta Sol alkatea azkar mugitu dira eta bien tartean bizitzera gonbidatu dute, eta, jakina, Fa-k gonbitea onartu egin du.

Gogoan izan lan-koadernoan agertzen diren ariketak ez direla nahikoa, eta garrantzitsua dela beste adibide batzuk ere proposatzea. Beraz, asma itzazue beste eskema erritmiko batzuk eta pentagramara pasarazi, ondoren.

15. Perkusjolasak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 18. or., 3.3. fitxa/CDa, jarduerak

Lehen-lehenik, *Xalom jabali* entzun eta erritmo-eskema hori belaun-gainak kolpatuz, oinekin lurra kolpatuz, txaloz, kriskitinak joz, silabaren bat ahoskatuz... egingo dugu, ongi memorizatu arte. Eskema osoa soinu bakar bat erabiliz osatuko dugu.

Gero, konpas bakoitza gorputz-atal batez interpretatuko dugu. Amaitzean, berriro ekin eta, horrela, “ostinato” bat sortuko dugu. Ikasle bakoitzak bere lau gorputz-atalak erabiliko ditu, hau da, eskema osoa osatu beharko du.

Jolas modura, lau talde ere osa daitezke: oinen taldea, belaun-gainen taldea, txaloen taldea eta kriskitinen taldea. Horrela, bakoitzak berari dagokion konpasa soilik interpretatuko du.

Ondorengo urratsa musika-tresnak banatzea izango da, eta gorputz-atalekin egin dugun gauza bera egin dezakegu. Hau da, musika-tresna bakoitzak eskema osoa egin eta, gero, tresnari dagokion konpasa bakarrik.

Kantua ikasi ondoren, orkestratxo bat jarriko dugu martxan. Abestu eta une berean, “ostinatoa” markatzea lortu behar dugu.

“ostinatoa” : eskema erritmiko bat nahi adina aldiz errepikatzea.

16. Farfaileen fereka

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 19. or., 3.4. fitxa/CDa, jarduerak

Fa nota soilik erabiliz, kanta hau sortu dugu. Melodia “monotonoa” izanik, eritmoarekin eta hitzekin jolastuz, abesti txukun bat egiten saiatu gara.

17. Musikarien txokoa: Itsasoko musika

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 20. or., 3.5. fitxa

Hotsekin esperimintatzea dugu helburu.

Zer imitatu nahi dugun jakitea behar-beharrezkoa da. Agian, zuen hurrek ez dute sarritan itsasoa entzuten. Kasu horretan itsasoaren soinuz osatutako grabaketa bat entzun daiteke aurrena. Hala ere, ahal izanez gero, egin ezazue ibilalditxo bat itsasaldera eta olatuak zuzenean entzun, portuko giroa, kaiokak...

Orain, badakigu zer imitatu nahi dugun. Goazen, bada, denon artean nola egingo dugun pentsatzera. Zer gauza behar ditugu? Non lor ditzakegu? Zer ekarriko du bakoitzak?... Gogoan izan talde-lana garrantzitsua dela.

Soinuak lortzeko tresnak egin ditugu eta, esperimintatu ondoren, denon artean itsasoan gertatzen den istoriotxo bat asma dezakegu, eta “efektu bereziak” sortzeko, asmatu ditugun tresnak erabili. Lan-koadernoan proposatzen direnez gain, ziur beste batzuk ere bururatzen zaizkizuela.

Horrez gain, itsasoarekin lotura duen abesti bat dugu CDan: *Itsasoan urdin*.

18. Negua

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 21. or., 3.6. fitxa/CDa, jarduerak

Do, Re, Mi eta Fa dira ariketa honetako protagonistak.

Nota berdinak erabiliz, komenigarria da beste erritmo bateko kantatxoak proposatzea. Horrela, notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek. *Musika 2, jarduerak* CDan hor duzue *Negua*.

19. Jolasa

Kan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 22. or., 3.7. fitxa

Zenbakiek ordena duten bezala, 4aren ondoren 5a dator eta jarraian 6a, notek ere zerrenda bat osatzen dute. Mi eta Fa elkarren segidan daude, Do eta Re bezalaxe.

Agian, ariketa egin aurretik, eskala errepatatu beharko dugu. Do, Re, Mi, Fa, Sol, La, Si.

Horrez gain, *Nondik, nondik?* abestia dugu jarduera honetan (ikusi *Musika 2, jarduerak*).

20. Irteera

Lan egiteko era: Talde handian

Unitate honetan jorratuko ditugun gaietako buruzko hainbat ekintza edo ikuskizun eskaintzen dituzten aquarium (Donostia, Biarritz) edo museoetako gain (Untzi museoa...), egokia litzateke irteeraren bat antolatzea.

Egin ezin baduzue, anima itzazue ikasleak euren gurasoekin joan daitezten.

Internet erabiliz, Donostia, Biarritz edo Monterrey Bay-eko itsas museotara egin dezakezue bisita.

21. Euskal balearen ezaugarriak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Irakurgaiak 2, 33. or.

Orrialde honetan dugun testua arreta handiz irakurtzekoa dela adieraziko diegu haurrei, unitatean azaltzen den egia-gezurra motako jarduera ongi egin nahi badute, behintzat (ikus hurrengo jardueraren deskribapena gidan). Oraingoan, xehetasunei jarri behar diete arreta, eta horren adibide bat jartzea komeni da irakurketa hasi aurretik (ez da berdina begi txikiak izatea edota buru txikia izatea, adibidez).

Ondoren, bakarka nahiz binaka jarrita, testua irakurriko dute, eta ulertzen ez dituzten hitzak edo esaldiak azpimarratu egingo dituzte.

Gero, gela osoak irakurriko du, ulertu ez diren hitz edo kontzeptuak argitu ahala (testuinguruaz baliatuta edota hiztegia erabilita) balearen ezaugarriez jabetzeko.

Gure hiztegian idatz dezakegu hainbat hitzen esanahia.

22. Euskal balea?

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 9. or.

Egia-gezurra motako galdera hauek, orain arte ez bezala, xehetasunen baten aldaketan oinarrituta daude, hau da, esaldiak irakurgaietan agertzen direnen tankerakoak izango dira, eta aldaketa bakarrik hitz batean besterik ez da egongo. Hitz horrek esaldi osoaren zentzua aldatuko du, eta hori da, hain zuzen ere, nabarmendu nahi duguna. Beraz, ikasleei adierazi beharko zaie aipatutakoa, ikusaraziz bi irakurketa mota egin daitezkeela, asmoaren arabera: ideia orokorra hartzeko edo zehaztasunetan oinarrituta dagoena.

Ondoren, ikasleek, bakarka, ariketari ekingo diote. Behin ariketa bukatuta dagoenean, ikasle bakoitzak bere irakurketa-liburua hartu eta auto-zuzenketa egingo du.

23. Gure balea

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Euskal balearen ezaugarriak ezagutu ondoren, gai izango gara, bada, gure balea egiteko. Horretarako, “goma-aparra” erabiliko dugu. Lehenik, balearen marrazkia egingo dugu, irudia barneratzeko eta gerora eraikiko dugunaren profilaz... jabetzeko. Ondoren, patroia (neurria taldekatzearen arabera izango da, gogoratu oso ikusgarria gera daitekeela guztion artean balea erraldoi bat egiten badugu) paperean moztu eta goma-aparrean (1 cm lodierakoa balea txiki eta ertainentzat, lodixegoa handia egin nahi badugu) markatu eta moztu. Halako bi egin. Gehitu behar dizkiogun elementuak (begiak, bizarrak...) aparte moztu eta itsasgarri berezi batez (cola de contacto) itsatsi. Bi aldeak itsatsi aurretik, margotzea komeni da, baita aipatutako elementu solteak ere. Margotzeko, tenpera oso urtuak erabil daitezke. Gune handiak margotzeko, esprai bat erabil daiteke.

Oharra: itsasgarria (cola de contacto) irakasleak erabili behar du, haurrentzat toxikoa baita. (Bestela, oso toki haizetsuan eta arnasbideak babesteko maskaratxoak ipinita, eta haurrak txandaka pasatuz ere erabil daiteke).

24. Balearen ehiza: talaiariaren deia, balearen ehiza, partiketa-salmenta

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Bi orrialde hauetan, balearen ehizan ematen diren urrats nagusiak zein diren jakiteko, hiru ariketa dituzue.

Hasteko, talde handian, lehenengo urratsari dagokion azalpen-testua irakurriko dugu. Ondoren, ikasleek testu horretatik ateratako hiru hitzen esanahia idatzi beharko dute irudi bakoitzaren ondoan. Hitz horien esanahia hiztegian aurki dezakezue, eta ariketa bera era askotara egin:

- Irakasleak ikasleei hitz bakoitzaren esanahia diktatuta.
- Hitz bakoitzaren esanahia arbelean idatzi eta ikasleek kopiatuta.
- Hitzaren esanahia argitu ondoren ikasle bakoitzak bere erara idatzita.
- Aurreko hiru aukerak konbinatuta.

Bigarren urratsari dagokionez, azalpen-testua irakurri ondoren, ikasleek behealdean duten argazkian, testuan azaldutako hitzak idatzi beharko dituzte, bakoitza dagokion tokian, adibidean agertzen den bezala. (“Txabalina” hitzari buruz aipamentxo bat: Dokumentazioan, tresna horren izena askotan agertzen bada ere, hiztegietan ez dago bildua; horregatik dago adibide gisa bertan jarrita).

Bigarren urrats hau egin ostean, Poxek esandakoari buruz eztabaidatxo bat eragin dezakegu: *Zergatik izango ziren emakumezkoak etxez etxe berria zabalduko zutenak?*

Hirugarren urratsa irakurri eta argitu ondoren, ikasle bakoitzak bere iritzia idatzi beharko du beheko esaera horren inguruan. Irakasleok balearen mihia oso preziatua zela esatea ez legoke sobran. Ondoren, talde handian, bakoitzak bere iritzia adierazi eta justifikatuko du.

Irakasleak balearen ehizari buruzko informazio interesgarria du 41. jardueran gehitutako bideoan.

25. Balearen bertsoak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa/Irakurgaiak 2, 34. eta 35. or.

Benito Lertxundiren “Balearen bertsoak” abestia entzungo dugu. Abesti horrek benetan gertaturiko istorioa kontatzen digu pausoz pauso; beraz, ikasleei jakinaraziko diegu eta, berriz ere, musikaz gozatzearekin batera, letrak esaten duenaz ohartzera bultzatuko ditugu.

Ondoren, irakurgaietara joko dugu, eta abestiaren letra irakurriko dugu, talde handian edo bakarka. Gero, letra aurrean dugula, CDarekin batera abesten saiatuko gara.

Bukatzeko, irakurgaietan bertan adierazita dagoen bezala, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko ezberdintasunei buruz mintza gaitzke.

26. Balearen ehiza dramatizatu

Lan egiteko era: Talde handian

Balearen ehizaren urrats nagusiak aztertu eta abestia entzun eta irakurri ondoren, horren dramatizazioa egin dezakegu. Jolas-ariketa hauek egingo ditugu:

- a) Gorputz-adierazpena lantzeko:
Balearen ehizarako arrantzaleek egin behar dituzten mugimenduak “kamera geldia” teknikarekin errepikatzen saiatuko gara.
- b) Keinu-adierazpena lantzeko:
Arrantzaleek egiten dituzten keinuak errepikatuko ditugu: Esate baterako:
 - Balea ikusterakoan..., harridura.
 - Balea jasotzerakoan..., esfortzua.
 - Balea harrapatu ondoren..., poza.
- c) Girotu ondoren, paperen banaketa egingo dugu: Talaiaria, herriko emakumeak, arrantzaleak, balea, saltzaileak, apaizak, erregeak, etab.

Gela bi taldeetan banatuko dugu. Horrela, talde bat ari den bitartean, besteak ikusi egingo du.

- d) Dramatizazioa egingo dugu. Irakaslea narratzailea izan daiteke, baina pertsonaia bakoitzak esaldi pare bat prestatuko du dramatizazioa osatzeko.

Adibidez:

Narratzailea: *Kostaldeko herri arrantzale batean, egunero bezala, talaiaria bere talaian zegoen.*

Talaiaria: *Han urrutian, balea ikusten dut. Sua piztuko dut herriko jendeari abisatzeko. (Sua pizten du)*

Emakumea: *E, Luisa! Ez al duzu talaian kea ikusten?*

Luisa: *Bai, hori da seinalea...*

Horretarako, “goma-aparrez” egindako balea erabil dezakegu.

Orion balearen ehiza dramatizatuz egiten den parodiaren gidoia eskura dezakezu baliabideetan.

27. Gure txalupa

Lan egiteko era: Talde handian

Balearen ehiza geroxeago aztertuko badugu ere, untzigintzarekin erlazionatuta, gure txalupa egin dezakegu, eta, gainera, antzezpenerako oso aproposa gerta dakiguke.

Hozkailuak biltzeko kartoizko kaxa handiak erabilia, txalupa handi bat egin daiteke, beheko zatia libre utzita, marinela eskifaia barruan sartu ahal izateko. Sorbaldatik zintzilik eraman dezakete, eskuak libre edukitzeko, edo, bestela, eskuekin txalupari helduta. Arraunak, arpoiak, etab. ere kartoiarekin egin daitezke. Lehenago egindako balea handiari (edota kartoiaren moztutako balea baten profila bestela) atzeko aldetik euskarri batzuk ipini eta mugitu egingo genuke.

28. Balearen etekina

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.

Balearen arrantzak zuen garrantziaz jabetzeko, ikasleek orrialde horretan agertzen den testua irakurtzeaz gain, irudiak testu zatiekin lotu beharko dituzte. Ondoren, talde handian zuzendu dezakezue.

29. Ternuara balearen bila

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.

Talde handian, Poxek eta Urdintxok luzatutako ideien gainean eztabaidatxo bat eragin dezakegu, ekologiaren ikuspuntutik. Balearen arrantzari buruzko egungo daturik badugu, orain erabil ditzakegu.

Ondoren, munduko mapa bitarteko dela, euskaldunak (garai hartako baliabideak kontuan izanik) oso urrutira joaten zireneko ideia helarazi behar diegu haurrei.

Bukatzeke, ikasleek pergaminoan agertzen den idatzia behar den bezala berriidatzi beharko dutenez, puntuazio-arauak birgogoratu beharko ditugu taldean.

Komenigarria litzateke puntuazio-arau horiek kartulinaren batean idaztea eta gelako horma batean jartzea, ikasleak behar duenerako erreferentzia izan dezan. Lan hori talde txikietan egin dezakezue, talde bakoitzak arau bat eta adibideak idatziz. Adibidez:

PUNTUAZIO ARAUAK:

- Esaldiaren hasieran eta puntuaren ondoren, beti LETRA LARRIZ idazten da.
- Izen bereziak ere maiuskulaz idatzi behar dira:
 1. Herri izenak: Orio
 2. Pertsonen izen-deiturak: Maddalen
 3. Mendien izenak: Bizkargi
 4. Animalien izen bereziak: Pox, Urdintxo

30. Tradiziozko abestia: “Boga-boga marinela”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa

“Boga-boga marinela” abesti tradizionala entzun eta mezuaz jabetu ondoren, denon artean abestuko dugu.

31. Gurutzegrama

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: 3. lan-koaderno, 25. or.

Orain arte ez bezala, oraingo honetan, ikasleak pista ematen duten esaldiak irakurri ondoren, gurutzegraman jartzea eskatzen zaion hitza asmatu beharko du; horregatik, jarduera hau binaka egitea proposatzen dizuegu, bakarka egitea ere posible izanik. Suposatzen dugu erraz asmatuko dutela; hala ez balitz, unitatean kontsulta dezakete.

32. Ontzigitza

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or./Material osagarria, 1

Euskaldunek, garai batean, untzigitza-teknika berriak ondo bereganatu zituzten bikingo-normandiarrengandik, eta beranduago, maisuak eta ekoizle handiak izan ziren. Gaur egungo japoniarrekin parekatu izan dira, behin baino gehiagotan.

J. S. Elkanoren “Victoria” naoa, munduari bira eman ziona, Zarauzko ontziolan eraiki omen zuten.

Orrialde honetan, ontzigitzarako euskaldunek zuten maisutasunaz jabetzeaz gain, ikasle bakoitzak bere ontzia egiteko aukera izango du. Horretarako, ontzi bat egiteko jarraitu beharreko prozesua ondo aztertuko dugu, pausoz pauso irakurriz eta behatuz, eta, ondoren, material osagarrian aurkituko dugun txantiloia erabiliz eta agindutako pausoei jarraituz, ikasle bakoitzak bere ontzia eraikiko du.

Ontzigitzari buruz, Donostiako Aquariumaren web orrian aurki dezakezu informazio egokia *ontzigitza* dioen atalean.

33. Errenazimentua

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.

Talde handian, munduari buruz ikasleek duten ikuspegia jakiteko eztabaida sortuko dugu eta, era berean, hizkuntza-funtzio batzuk ipiniko ditugu martxan.

- *Nolako delu uste duzue mundua?*
- *Zapala bada, non hasiko litzateke eta non bukatuko?*
- *Biribila bada, zergatik ez gara jausten?*
- ...

Horrekin batera, errenazimentu garaian gertakari eta aldaketa garrantzitsuak eman zirela eta munduarekiko ikuspegia aldatu eta zabaldu egin zela helaraziko diegu ikasleei.

Eztabaidaren ostean, ikasle bakoitzak orrialde horretan agertzen diren irudiei behatu eta idatziz adierazi beharko du gizakiak garai bakoitzean munduari buruz zuen ikuspegia nolakoa zen.

34. Nabigatzaile handiak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or.

Ikasleei orrialde bi horietan agertzen den informazioa irakurtzeko eta mapa behatzeko tartetxo bat emango diegu. Ondoren, aurre ezagutzak martxan jartzeaz gain, arrazonatzera eta imajinatzerara bultzatzen dituzten estrategiak ere aktibatzen saiatuko gara:

- Norbaitek entzunak zituen noizbait nabigatzaile haien izenak?
- Idatzita dagoenaz gain, inork ba al daki haiez zerbait gehiago?
- Zergatik izango direla hain famatuak uste duzue?
- Eta egindako aurkikuntzak zergatik izango zuen horrenbesteko garrantzia?
- Demagun nabigatzaile haiek ez zutela inolako aurkikuntzarik egin, mesederako edo kalterako litzateke? Zergatik?
- ...

35. Andres Urdanetaren biografia

Lan egiteko era: Talde handian/Banaka

Materiala: 3. lan-koaderno, 27. or.

Unitate honetan, biografia izango da era zehatz batean landuko dugun testua. Biografiak pertsonaia bati buruzko informazioa ematen digu, haren bizitzari buruzko datu esanguratsuenak, alegia. Bi zatitan bana dezakegu: hasierako datuak eta bizitzari buruzko aipamen kronologikoak.

Andres Urdaneta nabigatzaile euskaldunaren biografia bitarteko dela, biografia zer den azalduko zaigu. Taldean irakurri eta argitu ondoren, hurrek testuaren zatiak ordenatu beharko dituzte.

Interneten bila ditzakezu hainbat datu pertsonaia horren biografia osatzeko.

36. Boga-boga abestia rock erritmoan

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: CDa

Delirium Tremens euskal taldearen “Boga-boga” abestia entzungo dugu. Letraz eta mezuaz jabetu ondoren, bi aukera ditugu:

- Irakasleak letra eman eta denen artean abestea.
- Arbeletik abestia folio batean kopiatu, irudia egin eta, ondoren, abestea.

Abestia buruz ikasten saiatuko gara.

37. Boga-boga abestia rock erritmoan dantzatuko dugu

Lan egiteko era: Talde handian

Dantza hau egiteko ere, aukera bat baino gehiago ditugu: bakoitzak nahi duen bezala dantza egitea edota, denon artean, koreografia erraza asmatu eta dantzatzea.

38. Hareazko poltsatxoak. Laguntza jaso eta emateko joko kooperatiboa

Lan egiteko era: Talde handian

Hasteko, irakasleak elkarrizketa bultzatuko du:

- *Badakizue, itsasoko kontuak aipatzen aritu garen honetan, uda honetako hondartzan ikusitako hainbat gauza etorri zaizkit burura: ur gazia, harea... Ai, eta harea aipatzearekin batera, joko bat bururatu zait. Nahi al duzue jolastu? Bere izena "Hareazko poltsatxoak" da, azaldu egingo dizuet nola jolasten den.*

Hasteko, hareazko poltsatxo batzuk egin behar ditugu. Poltsa horiek oihalezkoak izango dira, 10 bider 15cm-koak, eta barruan harea edo gatza sartuko dugu.

Giro aproposa lortzeko, musika lasaia jarriko dugu baxu-baxu.

Ikasleak gelan zehar mugituko dira, nahi duten erritmoan, euren buru gainean poltsatxoa daramatela. Poltsa jausiz gero, jokalaria izoztu egingo da, eta gorputzaren jarrera berberan gelditu egongo da, norbaitek bere poltsa lurretik hartu eta berriro buru gainean jarri arte; hori bai, laguntzaileak kontu handiz egin beharko du lan hori, bere buruko poltsa galtzeko arriskua ere izan dezake eta. Jokoaren helburua, beraz, lagunaren artean laguntza ematea eta hartzea izango da, izoztu gabe gelan zehar mugi daitezten.

Jolas horretan hainbat bider jolastu ondoren, aldaera batzuk sar diezazkiokegu; adibidez, irakasleak jarraibide batzuk emanaz (bizkortu abiadura, orain moteldu, orain atzerantz ibili...). Zailtasuna eta dibertsioa handitzeko, zilegi duzue ikasgelan zehar enbarazuak jartzea ere (aulkiak, sokak altuera jakin batean...).

39. Artelana

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.

J. S. Elkano nabigatzaile euskalduna, munduari bira eman zion lehena, beste nabigatzaile batzuekin batera Nao Victoriatik lehorreratzeko agertzen zaigu artelan honetan. Artelan hau Elias Salaberria pintore gipuzkoarrarena da. Pintore errealista zen eta bere koadroak naturalismoz beteta zeuden. Itsasgizonak hiru urtez nabigatzen ibili ondoren, gorputzez argal, aurpegietan nekea eta kemen falta, eta arropak ere hautsi-hautsi eginda erakusten dituzte.

Haurrei koadroari behatzeko aukera emango diegu, eta goian aipatutako zehaztasunetan arreta jar dezaten eskatuko; gero, elkarrizketa bultzatuko dugu, hainbat hizkuntza-funtzio martxan ipinita:

- *Nor izan daitezkeela uste duzue koadro honetan agertzen direnak?*
- *Gogoratzen al duzue naoaren izena zein zen? Eta non eraiki zen?*
- *Beha iezaiezue agertzen diren pertsonen itxurari eta aurpegiei: zer adierazten dute? Zergatik?*
- *Lehorreratzeko une horretan nola sentituko zirela pentsatzen duzue?*
- *Nola sentituko zinatekete zuek egoera horretan?*
- *Hainbeste denbora itsasoan eman ondoren, zer egin nahi izango dutela uste duzue orain?*
- *Bidaian zehar, zer gauza botako zituzten faltan?*
- *Bidaia horrek gauza onak eta txarrak izango zituen, zein?*

Ondoren, koadroa margotu zuen pintorearengan jarriko dugu arreta.

- *Konturatu al zarete zenbat gauza ondorioztatu ditugun koadroa aztertuta?*
- *Baina nork margotuko zuen hain era natural eta esanguratsuan? Ba al dakizue?*

Ikasleei pintorearen biografia irakurtzeko aukera emango diegu. Ondoren, talde handian, galdera batzuk luzatuko ditugu horren inguruan:

- *Ea, irakurritakoa zer da, pintorearen baten eskutitza?*
- *Orduan, nork esango dizkit pintore horren datu batzuk?*
- *Salaberria pintore errealista dela esaten denean, zer adierazi nahi da horrekin? Eta egia al da errealista dela? Zergatik?*

40. Ni ere Elkano

Artelana eraldatzea proposatzen dizuegu oraingoan. Zuloagak egindako erretratuaren fotokopian oinarrituta, haur bakoitzak bere argazkia ipiniko du Elkanoren aurpegia zegoen tokian.

Izenburua ere jar diezaiokegu, adibidez: “Joana Maddi Elkano” edota “Juan Mikel Elkano”, edo beste formula batzuk ere asma ditzakezue.

41. Bideoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Bideoa

Balearen ehizaren inguruko irudi batzuk ikusteaz gain, J. S. Elkanok munduari emandako birari buruzko bideoa ikusiko dugu. Bertan, bidaiari buruzko datu zehatzak ematen dira. Bideoa ikusten hasi orduko, ikasleei ikusiko dugunaren azalpen txiki bat emango diegu, girotuz gaian sar daitezen, eta, era berean, gogoratuko diegu, arreta handiz ikusi eta entzun beharko dutela bideoa, unitatean dauden bideoari buruzko galderak erantzuteko gai izan daitezen.

42. Bideoa aitzakia

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka

Materiala: Ikasleran liburua, 19. or.

Jarduera honetan, ikasleek bideoan ikusitakoa eta entzundakoari buruzko galderak erantzun beharko dituzte. Bigarren mailan gaudenez, erantzunak zuzenak izateaz gain, ondo egituratuta idaztea ere eskatzen hasiko gaitzaizkie ikasleei. Beraz, hori azaldu beharra dago, eta errazago gerta dakien, talde handian eta ahoz erantzuten saiatuko gara, egituraren zuzentasuna markatuz eta azpimarratuz.

Gero, gelan zintzilikaturik ditugun puntuazio-arauak irakurri eta birgogoratu ondoren, bakarka edo binaka, unitateko galderei erantzuna emango diete idatziz.

Bukatzeko, orrialde honen azpialdean agertzen den esaldiari erreparatuko diegu, unitatearen hariari jarraipena emateaz gain, ondoren jorratuko dugun gaia iradokitzen baitigu.

43. Joan Sebastian Elkanoren biografia

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: 3. lan-koaderno, 26. or.

Elkanoren biografia eskuratu behar dugunez, talde txikietan antolatuko gara, eta liburutegitik ekarritako entziklopediak arakatzeko hasiko gara. Aurreko gaien entziklopedietan informazioa nola bilatzen den praktikan jarri genuen arren, erabilpenari buruzko aholku batzuk birgogoratuko ditugu. Behin biografia aurkitu ondoren, talde txikietan irakurriko dugu eta lan-koadernoan eskaintzen zaigun eredu osatuko.

Internetan bila ditzakegu hainbat datu pertsonaia horri buruz.

Elkano, Joan Sebastian

Nabigatzaile gipuzkoarra (Getaria, 1476-itsasoan-1526), munduari bira eman zion lehena. Gaztetan, arrantzalea izan zen eta, gero, kontrabando-merkatarietako bidaiak egin zituen. Hogeita hiru urte zituela, Magallanes-ek Moluka irletara prestatutako bost ontziko espedizioan parte hartu zuen; portugesek erabiltzen ez zuten bide bat aurkitu nahi zuten.

Espedizioan zehar Magallanes hil egin zen. Bost ontzietatik bi besterik ez zitzaizkien geratzen eta espediziolari asko gaixorik hil zen. Elkanok "Victoria" ontziko eta espedizio osoko agintea hartu zuen. Moluka irletara iritsi eta ontzi bat bertan deseginda gelditu arren, "Victoria" espeziez kargatu eta itzulera antolatu zuen. Hiru urte eman zuten bidean eta hasierako 265 gizonetatik 22 baino ez ziren itzuli. Karlos V.a erregeak Elkanori armarrarian munduaren irudia eta honako esaldi hau ipintzeko baimena eman zion: "primus circumdedisti me".

Moluka irletara antolatutako beste bidaiaren batean abiatu zen, baina gaixotu eta bertan hil zen; gorpua kareletik behera itsasora bota zuten.

44. Manta magikoa. Konfiantzazko joko kooperatiboa

Lan egiteko era: Talde txikian

- Zer iruditzen zaizue guk ere, munduari bira eman gabe, bidaiatxo bat egingo bagenu?

Baina ez dugu itsasontziz bidaiatuko, manta magikoan baizik.

Gelako ikasleak sei edo zazpi kideko talde txikietan banatuko dira. Talde bakoitzak manta bat izango du. Taldeko kideek mantaren hegaletatik oratu eta bertan sartuta eramango dute bidaiaria, berak nahi duen lekura eta nahi duen moduan. Bidaiariak erabakiko ditu bidaiaren hainbat baldintza: manta gainean kokatzeko era (etzanda, jesarrita...), bidaiaren abiadura (arin, astiro...), modua (airean, narraska...).

Hasi orduko, jokalariek galdetu egingo diote bidaiariari nora bidaiatu nahi duen eta, joko hastean, bidaiariak esango du nola.

Irakasleak ikasleei ohartarazi beharko die joko horretan kontu handiarekin ibili beharko dutela, bidaiariak minik har ez dezan.

Bukatzean, beti bezala, esperientziari buruzko elkarrizketa bultzatuko dugu.

45. Piratak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.

Gai honi buruz, pelikulak, ipuinak etab. direla eta, litekeena da gure ikasleek guk baino informazio gehiago izatea: beraz, aurre-ezagutzak martxan ipiniko ditugu:

- *Zein ziren piratak eta zer egiten zuten?*
- *Nola deskribatuko zenituzkete pertsonaia horiek? (Arriskutsuak, onak, dibertigarriak, beldurgarriak...).*
- *Zuen artean, nork izango zenukete gustuko piratak izatea?*
- *Inork ezagutzen al du pirataren bat?*
- ...

Piratei buruzko elkarrizketa bukatu bezain laster, azalpen-testua irakurriko dugu talde handian eta ondoan agertzen den piratari behatuko diogu. Gero, ikasle bakoitzak azpialdean agertzen den jardura egin beharko du. Ariketa honen helburua ikasle bakoitzak kodean agertu behar duten esaldiak aukeratzea eta arrazonatzea da.

Talde handian justifikatuko du ikasle bakoitzak bere aukeraketa. Aukera guztiak ontzat emango ditugu, justifikatuta baldin badaude.

46. Hitz piratak

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: 3. lan-koaderno, 28. or.

Banaka edo binaka, ikasleek koadernoko lau esaldiak irakurri beharko dituzte eta esaldi bakoitzean txertatuta dagoen hitz pirata aurkitu eta hitz zuzenarengatik ordezkatu beharko dute. Ondoren, esaldia modu zuzenean berridatziko dute.

47. Piratak eta kortsarioak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.

Ikasleak unitatean bertan idatzi beharko du irakasleak piratei eta kortsarioei buruz diktatutakoa. Diktaketa egiten hasi orduko, hizketalditxoa bultzatuko dugu, aurre-ezagutzak martxan jarri eta iragartzeko bidea emanez:

- *Denok dakigu zer den pirata bat, baina ba al dakizue zerbait kortsarioei buruz?*
- *Piratek egiten zuten lan bera egiten zutela esaten badugu, zer ezberdintasun dago batzuen eta besteen artean izen ezberdina izateko?*

Diktaketa baten bidez lortuko dugu ezberdintasunaren azalpena, baina hasi orduko, puntuazio-arauei, letraren ulerkortasunari eta zuzentasunari buruz aipamen batzuk egingo ditugu.

Diktatu beharreko te *“Kortsarioek beren erregearen baimena zuten etsaien itsasontziak harrapatzeko, eta altxorra erregeari ematen zioten. Piratek, berriz, edozein itsasontziri eraso egiten zioten, eta altxorra euren artean banatzen zuten”*.

Ondoren, irakasleak arbelean euskaldun kortsario eta pirata batzuen izenak idatziko ditu, eta ikasleek kopia egingo dituzte. Honako hauek izan ziren euskal pirata ezagunenak: Anton Garai, Manex Laffitte, Mitxel “Le basque” eta Etienne Pelot.

Lan hau bukatu ondoren, Joanes Suhigaraitxipi pirataren irudiari erreparatuz, honi buruz azaltzen zaiguna irakurriko dugu eta, talde handian, eztabaida bultzatuko dugu, pirata edo kortsarioa izatearen alde baikor edo ezkorak alderatuz eta bakoitzak aukeratuko lukeena adieraziz.

48. Piraten abestia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa

Joxe Ripiau-ren “Paradisu zinema” CDko “Piratarena” abestia entzungo dugu. Musikaz gozatu, letraz jabetu eta mezua iragartzen saiatuko gara.

Ondoren, abesteari ekingo diogu, eta piraten kopia, behintzat, buruz ikasten saiatuko gara.

Gogoratu, nahi izanez gero, abestiaren letra kopia dezaketela edo, agian, lehenengo kopia hori diktatuz idatzi eta, ondoren, irudia egin.

*“Neure barkua, neure tesoria,
askatasuna neure jaungoikua.
Neure iparra haizea eta indarra,
itsasoa aberri bakarra”.*

49. Pirata bihurtuko gara

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Orain, pirata bihurtuko gara!

Horretarako, gelan dauden zapiak, lepokoak, etab. erabiliko ditugu. Nahiko material ez badugu, ikasleak etxetik ekartzeko animatuko ditugu.

Dena prest eduki ondoren, mozorrotu egingo gara. Neska-mutil bakoitzak gauza pare bat (hala hiru) besterik ez du hartu behar. Esate baterako, lepokoa eta buruko zapia; begirako zapia eta gerrikoa; etab. Muga jartzea interesgarria da; horrela, gutxieneko aukeraketa egingo dute; bestela, ez dira hain erraz kontrolatzen.

Mozorrotu ondoren, bakoitzak bere pirataren izena asmatu behar du eta baita esaldi bat ere, besteen aurrean bere burua aurkezteko. Adibidez:

- Bizar Beltz pirata dut izena. Altxor baten bila noa. Aurrera!

Aurkezpena egiterakoan, saiatu behar dute euren ahotsa pittin bat aldatzen, bere pertsonaia sinesgarria egiteko.

50. Piraten “Kareta”

Lan egiteko era: Bakarka

Beste apaingarriez gain, gure burua pirata bihurtzeko, “kareta bat ere marraz dezakegu. Aurpegiaren neurriari behatu, gutxi gorabeherako profila markatu, eta hasi apaintzen. Kontuz mozterakoan, sudurraren goiko partea moztu gabe.

Beste aukera irakasleak kartulina batean emandako ereduan oinarritzea da.

51. Anton Garairen biografia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: 3. lan-koaderno, 29. or.

Anton Garai gorliztar kortsario-pirataren biografia osatzea eskatzen zaie hurrei jarduera honetan. Aurrekoan bezala, informazioa eskuratzeko, entziklopedietara jo dezakegu edo, aukera izanez gero, Internet-en ere bila dezakegu; bide batez, Interneta informazio orotariko iturri dela adieraziko diegu eta erabilpenari buruzko oinarritzko urrats batzuk ikusteko aukera emango.

Interneten bila ditzakezu hainbat datu pertsonaia horren biografia osatzeko.

52. Irati pirata

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 2, 36. orrialdeetik 39.era

Ipuina talde handian irakurriko dugu, ikasle bakoitzak zati edo orrialde bat irakur dezake. Zati bakoitza irakurri ondoren, hizkuntza-funtzio batzuk martxan ipintzeko asmoz, galdera batzuk egin ditzakegu. Gero, ikasleek bakarka irakurtzeko tartea izango dute.

53. Ipuina aitzakia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Ipuin honetan, oso aberatsa den elementua agertzen zaigu: irudimena.

Ipuina entzun eta irakurri ahala, ikasleek buruan irudikatutakoa paperean adierazi behar dute.

Ondoren, irudimena bitartekari, talde txikietan, piratetan jolastuko dute. Hasteko, paperak banatu eta non eta zein egoeratan aurkitzen diren adostu beharko dute. Jolas horretan aritzeko, euren imajinazioa besterik ezin izango dute erabili. Gero, jolasten hastea besterik ez dute.

Gaur egungo haur askok, jolasteko orduan, gauza materialak erabiltzeko joera edo beharrezana izaten dute; horregatik, espazio huts eta handi batera eramatea aholkatzen dizuegu.

54. Ipuinen hasiera eta bukaera bereizten

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: 3. lan-koadernoan, 30. or.

Ipuina irakurri eta horri buruzko galderak erantzun ondoren, unitatean piratei buruzko ipuintxo bat egiteko eskatuko zaie ikasleei. Horregatik, jarduera egiten hasi orduko, ipuinen hasierako eta bukaerako formulen inguruko elkarrizketa eragingo dugu:

- *Nola hasten dira ipuinak? Behin batean... Orain dela urte asko eta asko... Bazen behin...*
- *Beti hasten al dira horrelako formulekin?*
- *Gogoratzen al duzue nola hasten zen Irati piratarena?*
- *Eta bukaerako zein formula ezagutzen dugu?*
- *Talde txikietan bilduko gara eta ikerketatxo bat egingo dugu, gelako ipuinak aztertu eta paper batean idatziko ditugu, alde batetik, aurkitzen ditugun hasierako formula guztiak, eta bestetik, bukaerakoak.*
- *Asmatuko al ditugu beste batzuk?*

Ondoren, talde handian, elkarrizketa bidez bildutako informazioa komunean jarriko dugu eta guztien artetik gehien gustatu izan zaizkigunak edo gehien errepikatzen direnak, “Hasierako formulak” eta “Bukaerako formulak” izenburupean, kartulina batean kopia eta ipuinen txokoan itsatsiko dugu.

Horren ostean, eta bukatzeko, ikasle bakoitzak aurkitzen dituen esamoldeak ipuin hasierak edo amaierak diren bereizi eta, sailkapenaren arabera, kopia beharko ditu bere lan-koadernoan.

55. Ipuin literarioa: “Karramarro uhartea”

Lan egiteko era: Talde handian

Hurrengo jardueran, ikasleek piratei buruzko ipuin bat asmatu beharko dutenez, unitate honetan Ttartalo argitaletxeko “Karramarro uhartea” saileko “Balearekin kantuan” piraten ipuina ikasleei irakurtzea proposatzen dizuegu, geroago ipuina idazteko ideiak sortzen lagunduko dielako.

Beti bezala, ipuina irakurtzen hasi orduko, euskarriaren azterketa egingo dugu, eta ondoren, motibazioa pizteko asmoz, aurre-ezagutzak eta Tough-en hizkuntza-funtzioak ipiniko ditugu martxan:

Azala aztertzen, irudia eta idatzia:

- *Zer da hemen ikusten duguna?*
- *Nor dira?*
- *Zer dakigu piratei buruz?*
- *Non daude? Zer da uhartea? Nolakoa da? Zergatik izango du Karramarro izena?*
- *Zer egiten ari dira piratak?*
- *Nola sentitzen direla uste duzue? Zer da horren adierazgarri?*
- *Eta zergatik egongo dira pozik? Zer gertatuko zitzaien?*
- *Zer kontatuko digutela uste duzue ipuinean?*

Ondoren, ipuina irakurtzeari ekingo diogu, eta, lantzean behin, galderaren bat egingo diegu, ikaslearen arreta ziurtatzeko eta ulermena bermatzeko.

Konturatuko zineten moduan, ipuina narratzaile orojakile batek kontatzen badu ere, tradiziozko ipuinak ez bezala, orainaldian idatzita dago, badirudi ipuina kontatu ahala gertatzen ari dela; ohartarazi horretaz guztiaz ikasleak eta galde iezaiezue nork kontatzen duen istorioa, noiz gertatzen den, gustuko duten, nola dagoen idatzita, idazkerak baldintzatzen ote duen ipuinarekiko hurbiltasuna irudimena piztea erraztuz...

Bukatzean, asimilazio-estrategia martxan jarriko ditugu:

- *Dimitri kapitainak oso umore zakarra zuen, kantari txarra zelako. Hain garrantzitsua al da ondo abestea? Nola sentituko zela uste duzue abestu behar zuen bakoitzean? Gustuko dugun zerbaitetan oso iaioak ez baldin bagara, horrek ekar diezagukeen amorrua saihesteko zer egin behar dela uste duzue?*
- *Umore zakarra izanagatik izan daiteke pertsona bat bihotz onekoa? Zergatik izaten du jendeak umore zakarra? Beste piratek esaten dute Dimitri bihotz onekoa dela, egia al da? Non erakusten du bere bihotz ona?*
- *Balearen oinazea arintzearen edo bere interes propioagatik laguntzen al dio piratak baleari?*
- *Zuek Dimitri izanda eta jakinik abesteak ekar ditzakeen ondorioak, abestuko al zenukete ospakizunean? Zergatik?*
- *Gustatu al zaizue ipuina? Aldatuko al zenukete ipuineko zerbait? Zer? Zergatik?*
- ...?

56. Piraten ipuina: ipuina idazten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Beti bezala, talde handian, idatzi aurretiko estrategien unea jarriko dugu martxan. Hasteko, egoera aztertu eta asmoa finkatuko dugu: piraten inguruko ipuintxo bat idatzi beharko dugu liburuan. Ondoren, ideiak sortzen eta jaurtitzeko hasiko gara, nahiaren arabera, liburuan bertan agertzen diren hitzak erabiliz edo berriak asmatuz. Gero, ideia horiek arbelean idatzi eta antolatuko ditugu; horren ostean, ipuina ahoz garatzen dugun neurrian, irakasleak edo ikasleren batek arbelean idatziko du.

Ipuina garatzen zoazten bitartean, ipuinen txokoari erreferentzia eginez, bertara joan eta han ditugun elementuak erabiliko ditugu gure ipuinean, hala nola hasierako formulak, denbora-antolatzaileak...; egiturari berari ere erreparatuko diogu, behin baino gehiagotan, ipuina garatzen ari garen bitartean eta, horrez gain, bigarren unitatean testu bezala deskribapena landu dugunez, apurka-apurka, pertsonaia baten edo besteren deskribapen laburra ere txertatu egingo dugu.

Arbelean ipuina osorik idatzita dugunean, denon artean berrikusketa eta horren zuzenketa egingo dugu.

Azkenik, ikasle bakoitzak bere liburuan kopiatuko du ipuina. Bukatzean, transkripzioan kodearen auto-zuzenketa bultza dezakezue edo, bestela, ikasleek liburuak trukatu, bata besteari zuzenketa bidera dezake, idatzirik dagoenaren gainean markarik egin gabe, ikasle bakoitzak berak bere liburuko azken zuzenketak eginez.

57. Piraten banderak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian

Materiala: 3. lan-koaderno, 31. or.

Piratek bandera ezberdinak erabiltzen zituzten. Ontzi bakoitzak berea zeraman eta pirataontzi batzuek bandera bat baino gehiago erabiltzeko ohitura zuten, mementoaren arabera. Ikasleei hiru bandera oaurkezten zaizkie, eta bandera bakoitzak, euren ustetan, adierazi nahi duena idatzi beharko dute.

Horren ostean, taldean, bakoitzak aukeratu duen bandera besteei erakutsiko die eta aukeraketaren zergatia irakurriko du.

CD-ROMean *Marrakzi Lantegiak* eskaintzen dituen baliabideak erabiliz talde txikian edo bakarka bakoitzak bere bandera diseinatzeko eskatuko diegu ikasleei.

58. Gure banderak

Lan egiteko era: Talde txikian

Orain, hurrek nahi duten “pirata bandera” margotzeko edota kollagez egiteko (kartulina beltza oinarri) aukera dute. Talde txikietan, bi edo hiru bandera asma ditzatela, eta gero, talde handian, beren esanahia adieraz dezatela. Banderok gela edota txalupa apaintzeko erabil ditzakegu.

59. Ingelesa. LET’S FIND THE TREASURE! ALTXOR BILA

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: 3. lan-koaderno, 31. or

Materiala: CD-ROMa

Beti bezala, hasi aurretik, ikasleei galdetu zertan ari diren lanean, eta egin dituzten lanak edo eta txokoetan duten materiala erakusteko eskatu.

Haur Hezkuntzan, 5 urterekin, piraten gaia landu zuten ingelesez; beraz, pixka bat bultzatuz, piraten munduko hitz batzuk-edo gogoratuko dituzte, agian.

Egokia izan daiteke ondorengo gauza hauek erabiltzea: pirata txanoa, begiko partxea, mapa eta kataloxa moduko zerbait.

Ondoren, liburuxka hartu eta dagokion orrialdeari (24. or.) behatu, Reddy’k dioena aztertuz.

What is Reddy saying? 'Land ahoy! Let's find the treasure!

Orri handi bat bildu kataloxa modura eta lurraren bila hasi. Aurrez egindako altxorraren mapa bat erakutsi (ertzak erreta eta te edo kafez zikinduta ahal balitz, zahar itxura emateko), eta umeei galdetu ea altxor bila joan nahi duten.

Ha ha! I have the treasure map here. Do you want to find the treasure?

Here's the map with treasure island. Here's the water. Can you see? Do you think the treasure is in the sea? No? Where could it be? Look at the map: In the cave? In the pond? in the trees? in the rocks?

O.K. we have to collect the clues to find where the treasure is. I have the instructions . Let's look at the map to see if we know all the clues in English.

Parrot , canon, ship / boat, fish, map, hook, bottle, eye patch, hat, telescope, tree. And each clue represents a letter. What is the eyepatch? C. And what is the map? A. etc.

And what's this at the bottom? It's a compass to mark North, South, East and West. Point to 'North'. Point to 'South' etc.

O.K. are you ready for the instructions? You need a piece of paper to write down the clues. Has everyone got a piece of paper?

We are going to start here with Reddy in the tree. (Top second square). Listen and collect the clues.

South: one square (parrot: E)

Now from that square, south: 3 squares and east: 2 squares (eye patch: C)

Now from that square, south: 1 square and west: 2 squares (hat: V)

Now from that square, north: 3 squares and east 2 squares (map: A)

That is where the treasure is hidden. Can you work out the code? The letters are not in order. Don't shout out.

O.K. what have you got? CAVE. Yes, the treasure is in the cave.

Shall we hide the treasure again?

Do you want to hide the treasure? What do you have to say?

North, south, east, west: squares

Altxorra mapako beste leku batzuetan ezkutatu, eta jolastuz jarraitu. Edo eta gai direla ikusten baduzue, talde txikitari jarri, eta ikasleek eman diezazkietela instrukzioak bata besteari. Ondorengo hitz hauek osatzeko letrak daude kodean: *trees, pond, rocks*.

60. Bueltako komikia. "Hauek bai piratak, hauek!"

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.

Komikia irakurtzen hasi orduko elkarrizketa bultzatuko dugu, gogoratu Tough-en hizkuntza-funtzioak aukera ditzakezuela eta martxan ipini:

- *Izenburua irakurrita, zer ematen digu aditzera?*
- *Nolako egonaldia izango zuten gure pertsonaiek piratekin batera?*
- *Piratak pertsonaia gaiztotzat eta beldurgarritzat baditugu, gure lagunak euren lagun egingo zirela uste al duzue? Zergatik?*
- *Zuen lagunak beti al dira guztiz zuen gustukoak?*

Komikia bakarka irakurtzeko tartea eman eta berriro ere elkarrizketa bultzatuko dugu, lehen botatako hipotesiak irakurritakoarekin alderatzeko. Horrez gain, beste hainbat puntu ere uki ditzakegu: izarren aipamena, itsasoarena, bixiguak, eta arreta jarraz diezakegu Maddalenek eskuan dakarren kataloxari.

61. Arrantza gaur egun

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or./Irakurgaiak 2, 40. or.

Taldean, gaur egungo arrantzaren egoerari buruzko testua irakurri ondoren, informazioa osatzeko, irakurgaietako berrira joko dugu.

Ondoren, talde handian, arrantzaren egoerari buruzko eztabaida eragingo dugu eta baita horri aurre egiteko proposamenak esatera bultzatu ere.

Eztabaidaren ondoren, haur bakoitzak bere proposamenak idatziko ditu liburuan.

62. Txisteak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 41. or.

Ikasle bakoitzak arrantzaleen giroko hiru txisteak irakurriko ditu. Ondoren, irakurritako txistea talde handian kontatzera animatuko ditugu.

Ikasleek etxean eta lagunartean gai horrekin erlazionatuta dagoen txisteren bat jakinez gero, papertxo batean idatzita ekartzeaz gain, hurrengo batean “txisteen unea” saioa antola dezakezue.

63. Itsasoa eta erreketako animaliak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or./Material osagarria

Hasteko, Maddalen abesten ari den kantari erreparatuko diogu eta, gelako baten batek ezagutzen duen galdetu ostean, abestu egin dezakegu. Gero, azpian dugun testua irakurriko dugu, eta ikasleei tarte bat emango diegu testuan agertzen diren arrain guztien izenak azpimarra ditzaten. Ondoren, horrez gain beste arrain edo uretako animaliarik jaten duten galdetuko diegu, eta arbelean apuntatuko ditugu.

Jarraian, bilduma egiteko agertzen zaigun fitxari behatu eta bertan adierazten dena argitu bezain laster, material osagarrira joko dugu eta bilduma nola egingo dugun erabakiko. Ikasleei gogora iezaiezue etxean topatzen dituzten aldizkari edo liburu-etako arrainen argazkiak edo fotokopiak gordez joateko, gero, bildumarako beharko baititugu.

64. Hitzjokoak

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: Irakurgaiak 2, 42. or.

Anjel Lertxundiren “Aizak eta aizan”-eko bi hitz-joko hauek irakurtzeko tartetxo bat eman ondoren, binaka jarrita irakur ditzakete, elkarrizketa bailiran.

65. Olerkia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 43. or.

Hasteko, Juan Mari Irigoienen arrainen inguruko olerkia (*Irakurgaiak 2, 43. or.*) bakarka irakurriko dute. Ondoren, olerkian agertzen ez diren eta ezagutzen ditugun beste arrain batzuei lelotxoak asmatzen saiatuko gara denon artean.

Proposamen bezala luzatzen dizuegu herriko arraindegi batera irteera egitea, arrainak bertatik bertara ikusteko. Horrez gain, gelako norbaiten guraso edo lagunak batek arraindegi batean lan eginez gero, gonbida ezazue gelara, gaiari buruzko hitzalditxo bat egitera.

66. Inkesta

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: 3. lan-koadernoak, 32. or.

Lehenengo eta behin, inkesta zer den argituko dugu, horren ezaugarri batzuk adieraziz (zehaztasuna, arintasuna...) eta ereduak ondo aztertuz. Ondoren, ikasleek etxeko norbaiti galdetuta egin beharreko inkesta osatu beharko dute.

Hurrengo egunean, gelako inkesta guztiak alderatuz eta emaitzak aztertuz, ondorio batzuk aterako ditugu.

67. Letra-zopa

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 3. lan-koadernoak, 33.or.

Banaka, letra-zopa honetan itsaso eta erreketako hamar animalien izenak aurkitu beharko dituzte.

68. Bilduma

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian

Materiala: Material osagarria

Bildutako informazioarekin eta argazkiekin edo beste zerbaitekin irudia eginez, bildumari hasiera emango diogu. Bakoitzak bere bilduma egingo duen arren, haurrak talde txikietan antolatuko ditugu, batak besteari laguntza eman diezaion.

69. Itsasoa fantasia-iturri

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or.

Hainbat dira itsasoarekin zerikusi zuzena duten fantasiaz beteriko ipuin tradizionalak: *Sirenatxoa, Peter Pan, Pinotxo...*

Irakasleak aukeraketa egin ondoren, horietariko ipuin batzuk kontatuko ditu gelan. Ondoren, entzundako ipuin guztien artean bat aukeratuko dugu eta, talde handian, ipuinaren zatiak eta azpiatalak kontuan izanik, horren laburpena egiten saiatuko gara. Bukatzeko, ikasle bakoitzak arbelean idatzi dugun laburpena bere liburuan kopiatuko du.

70. Entzunaldia: Aquariuma

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Jardueren CDa

Gela ilundu eta lurraren gainean etzango gara, gora begira eta begiak itxita ditugula. Orduan, Saint Saenz-en “El Carnaval de los Animales”eko “Aquariuma” entzutera goazela adieraziko diegu ikasleei, eta ixilean entzunaldiak aditzera ematen digunaz jabetzeko esango diegu. Entzunaldiek, abestiek bezala, kontakizun ugari aditzera ematen dizkigute, nahiz eta letrarik ez izan. Entzunaldiak oso aberatsak izan daitezke irudimena askatzeko. Bukatzean, elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *Nork esan diezaguke zer kontaktzen digun musika horrek?*
- *Ba al dago protagonistaren bat?*
- *Zer da gertatzen dena?*
- *Zein da entzunaldi horren mezua?*

Elkarrizketa bukatu ondoren, oso aberatsa izan daiteke obra berriro ere entzutea.

Entzuten dugun bitartean, gure gorputzaren bidez sentitzen duguna adierazi behar dugu. Mugimendu horiek ez ditugu aldeztu aurretik prestatu behar. Era libre batean, eta nahi dutenean, neska-mutilak mugitu egingo dira.

Bukatzean, entzunaldia folio batean irudikatzen saiatuko dira.

71. Olentzero bizar zuri

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or./CDa

“Bizar zuri” abestia entzun eta denon artean abestuko dugu.

Ondoren, Gabonak zoriotsu igarotzeko baldintzei buruzko eztabaida eragingo dugu. Eztabaidaren ostean, ikasle bakoitzak Gabonak zoriotsu igarotzeko baldintzak idatz ditzake paper zuri batean eta irudi batekin ilustratu. Denak batuz gero, bilduma ederra eta aberatsa osatu ahal izango duzue.

72. Gabonetako olerkia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 44. or.

Mikel Mendizabalen Gabonei buruzko bertsoa irakurriko dugu, eta azken esaldiari erreparatuz, hizketalditxo bat bultzatuko dugu.

73. Olentzero

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or./CDa.

Ikasleek txikitatik ezagutzen duten Olentzeroren kantaren bertzio berria entzun ondoren, abestu egingo dugu eta buruz ikasten saiatuko gara.

Behin abestia ikasitakoan, taldean edo binaka, unitatean eskaintzen zaien eredu moldatuko dute. Ondoren, bertzio berriak abesteari ekingo diote.

74. Intsaur-saltsa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 45. or.

Intsaur-saltsa dugu Gabonetako postre gozo eta tradiziozkoa. Gelan errezeta irakurri eta eman behar diren urratsak argituko ditugu. Ondoren, ikasleek Gabonetan etxean euren gurasoen laguntzaz intsaur-saltsa egitera animatu eta bultzatuko ditugu.

75. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Beti bezala, unitateari amaiera ematen dion sintesi lana dugu. Lan hori egiteko, galdera batzuk eta sailkapentxo bat proposatu dizkiegu ikasleei.